



Egun on.

Nagore naiz eta Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformaren izenean nator.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu Hezkuntza Batzordean parte hartzeko aukera emateagatik. Ilusioz eta mimoz prestatu dugu gure agerraldia, eta azkenak izatearen abantaila baliatuz, gure esanak gogoan gordeko dituzuen esperantza dugu.

Gure eskualdea Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia eta Aizarnazabal herriek osatzen dute eta guztietan dago gutxienez Eskola Publiko bat. Orion, Zarautzen eta Zumaian, publikoaz gain itunpeko ikastetxeak ere badaude, Ikastolak zein Kristau Eskolak.

Duela egun batzuk, 3 urteko alabak galdetu zidan:

-Ama, zergatik joaten dira gure lagun batzuk La Sallera eta beste batzuk Ikastolara?

Pentsatzen jarri nintzen, baina ez nuen jakin erantzuten. Eta gaur-gaurkoz, oraindik ez dakit. Eskaintza publikoak eskaini ezin dezakeen zer ematen die herriari?

Nazio ikuspegia aipatzen dute batzuek. Eta egia esango dizuet: gure zonaldeko Eskola publikoetan hori ez da bereizgarria. Eta guk ere lagun ditugu administratiboki beste lurralde batzuetan dauden ikastetxeetako ikasle eta hezkuntza komunitateak. Ez, gaur egun argudio horrek ez du balio.

Kristau balioak aipatzen dituzte besteek, baina Kristau Eskolak ere laikoak baldin badira, bada.. galderari erantzutea oraindik eta zailagoa egiten zait.

Gure zonaldeko errealitateaz ari naiz. Jakin badakit egoera oso ezberdina dela batean eta bestean, baina nik gaur, gure herrietan gertatzen dena kontatu nahi dizuet.

Urola Kostaldeko ikastetxe guztietan kalitatezko hezkuntza eskaintzen da. Eta oinarri berberak azpimarratzen dituzte matrikulazio kanpainan denek: ikaslea erdigunean, metodologia aktiboak, euskara eta eleaniztasuna, elkarbizitza.. Hitz potoloak batzuek zein besteek. Baina mezua, finean, berbera, izan titulartasun batekoa zein bestekoa.

Saiatzen dira hezkuntza proiektuan dauzkaten ezberdintasunak azaleratzen; horretan indar handia jartzen dute, bai, handia. Hainbeste, non herritar askori ahaztu egiten zaien ikastetxe guztietan marko juridiko bera jarraitzen dela. Eta derrigorrez, denek bete behar dutela curriculumak zehazten duen irteera profila funtsezko konpetentzietan eta horretarako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio irizpideak hartu behar direla kontuan eta abar eta abar.

Orduan, zertan bereizten dira? Nekez azalduko diot nik ulertzen ez dudana alabari.

Seme-alabak matrikulatzera doazen gurasoak ere ez dakit zertan oinarrizten diren hautu bat ala bestea egiteko. Ideia batzuk bururatzen zaizkit hala ere:

- Ikastetxea aukeratzeko 1. arrazoa: publizitatea.

Ai ama! Zenbat diru, zenbat izerdi eta zenbat ordu eskaintzen zaizkion marketinari! Nork esango luke! Urte guztia irauten duen marketin kanpaina batean bizi gara, egiten den guztia familia berriak erakartzera begira. Hezkuntzaren merkantilizazio erabatekoa. Kasu batzuetan enpresa kudeatzaileak jarri dituzte ikastetxeen buru, pedagogia bigarren mailara baztertuz. Eta horiek markatzen dute erritmoa, tonua eta konpasa. Eta gutxiengo zarata maila batera iristen ez bazara akabo, ez zara existitzen!

Webguneak, sare sozialak, merchandising-eko arropa, poltsak, txirrindulari maillotak.. Denak balio du! Eta matrikulazio garaian kartelak kalean, dendetan.. Bakoitza marraren zein aldetan kokatzen den argi azalduz.

Eta gero kohesio soziala eta bizikidetza bezalako hitzekin betetzen zaigu ahoa. Benetan uste duzue honek laguntzen duela?

- Ikastetxea aukeratzeko 2. arrazoa: instalazioak.

Ai, ai, ai! Zer esango dizuet ba? Estilo nordikoa, diseinu minimalistak, espazio irekiak, kolore zuria eta egurra bazter guztietan. Hauxe dio oraingo modak. Aterpeak, eta natura elementuak aurre eta atze, goi eta behe. Pikler eta Montessori. Dena casual, baina dena oso garesti, kasualitatez.

Zenbat zero? Berdin du. Batzuek dirutza handiak lortzen dituzte hemendik eta handik. Bai, auzolanean eta herritik, baina baita banketxe, higiezin enpresa eta nola ez, borondatezko kuota, ez barkatu, ekarpenetatik ere.

Eta bitartean, gure herriko eskola publikoetan duela 30 urteko adreilu gorriak ikusten dira, inbertsiorik apenas izan duten teilatu eta fatxadak. Pentsatzen jarrita, instalazioei dagokienean, ikastetxe zaurgarriak ditugula esango nuke. Ez zaizue iruditzen?

- Ikastetxea aukeratzeko 3. arrazoa: zerbitzuak.

Euren seme edo alaba matrikulatzera doazen familiek garrantzia handia ematen diete zerbitzuei, eta horren aurrean, nola ez, ikastetxeek euren aurpegiarik politena erakusten dute. Zaintza zerbitzua (ahalik eta zabalena), garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak (yoga, dantza, ingelesa, pianoa, jolasak, mendia.. dena ad-hoc, ondo antolatuta eta dibertigarri, baita larunbat eta igandetan ere!).

Eta zerbitzuez ari garela, ezin aipatu gabe utzi azken aldiari oso modan jarri den beste kontu bat: jangela. Oh yeah! Horretarako aukera dutenek euren kanpainetan ondo azpimarratzen dute euren sukaldeetan prestatzen dutela bazkaria, bertako

azalorre eta kuintxoekin, dena KM0. Gure zonaldeko Eskola Publikoetako bazkariak berriz geroz eta kilometro gehiago egin behar dituzte. Ez pentsa, jangelako bazkaltiarrei ezezik, bertako ekonomiari eta ingurumenari ere mesede egingo lioke denok herrian, herritik eta herriarentzako sortutako porru eta tomateak jateak. Baina Garapen Jasangarriko Helburuak eta Agenda 2030k hemen ez dute lekurik. Ez dago beste aukerarik. Plast! Parez pare itxi zaie atea Aizarnazabal, Orio eta Getariako Guraso Elkarteei sukaldea eskatzera joan direnean.

Eta berriz esango dut, eh? Gure Eskoletako familiei, bekadunei ere bai, gustatzen zaie euren etxeko txiki eta ez hain txikiek garaian garaikoak eta ekologikoak diren elikagaiak jatea. Baina..(diru keinua) Zeinek? Nola?

- Ikastetxea aukeratzeko 4. arrazoa: irakasleen egonkortasuna.

Aitzakia hau ere maiz entzuten da. Aitzakia diot, zeren gure eskualdean, hain justu, irakasle talde finko samarrak ditugu. Bai, irakasleak gaixotzen dira edo lizentziak hartzen dituzte, baina ez beste zentroetan baino gehiago. Eta kasu hauetan, ordezkioak etortzen dira, eta batzuek gure Eskola eta Hezkuntza proiekturako oso profil egokia dutenak. Match egiten dugu eta eurek ere gurekin jarraitzeko gogoia adierazten dute, baina ez daukagu horretarako eskumenik. Itunpeko pribatuek bai, euren barne prozedurak jarraituz nahi duten langilea kontratatzeke aukera dute. Eta gustukoa ez badute, aio Pelaio! Guk berriz patatekin jan behar izaten ditugu.

Eta patatekin jaten ditugu baita ere, hezkuntza publikoan sinesten ez duten administrazioko langileak: irakasleak, Udal teknikari eta kargu politikoa duten alkate, zinegotzi eta abarrak. Eta ez, ez dago eskubiderik aizue! Gure etxean ditugu eta gure kontra egiten dute. Itunpekoetan, imajinatu ezina da horrelako gauzak gertatzea. Gurean eguneroko ogia. Ezin dugu horrela lan egin. Funtzio publikoko langileek lan egiten duten erakundearen mesedetan jardun behar dute. Eta bestela, agur benur!

- Ikastetxea aukeratzeko 5. arrazoa: familia ereduak.

Polo berdinekoek erakarri egiten gaituzte, bestela ikusi zein lankide edo parkeko zein beste gurasorengana hurbiltzen garen. Eta ikastetxea aukeratzeko orduan ere, aizue, kolore berekoak ikastetxe berdinetan pilatzen dira, daltonikoenak ere ikusten du hori. Eta horrek izen bakarra du: segregazioa. Gu ere ados gaude gaiari heltzea lehentasunezkoa dela esaten denean. Eta aurten, azkenean, etorri dira aldaketak. Egia da, eta arrazoi dute: indarrean sartu diren neurriek ez dute segregazioa konponduko, baina gutxienez, ez al du gaia mahai gainera ekartzeko balio izan? Orain arte ez zen gaiari buruz hitz egin ere egiten. Ez arazorik ez zegoelako. Ze barkatuko didazue, baina ikastetxea aukeratzeko eskubidea beti urratu izan zaie familia batzuei, ez dute beste aukerarik izan. Baina horiez ez da inor gogoratu. Eta orain, ikastetxea aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen dute batzuek, eskubide kolektiboaren gainetik eta laino guztien azpitik.

Eta segregazioaz ari garela, ezin euskararen erabilera aipatu gabe utzi. Orduan eta ikastetxe homogeenagoa, orduan eta euskara gehiago entzuten omen da patioan. Jakina! Baina euskararen sustatzaile ezinbestekoak diren horiek jakin beharko lukete, gure herrietan ez dutela inolako meriturik. Koloretsuagoak diren Eskola publikoek euskalduntzen baitituzte etxetik euskara ez dakarten neska-mutilak.

Hala ere, azken neurketek euskararen erabilera jaisten ari dela diote, baita gurea bezalako arnas gunean ere. Eta horren aurrean zer egin behar dugu, haur euskaldunak euren artean pilatu? Benetan? Euskara salbatzeko ideia hoberik ezean, bizarririk moztu ezinda jarraitu beharko dugu.

Beraz, eta argi esango dut: gure eskualdean titulartasun ezberdineko ikastetxeak egotea segregatzailea eta euskararen kontrakoa da.

- Ikastetxea aukeratzeko 6. arrazoa: estigma.

Esplikatu ezinak diren ideiak, sentimenduak sortzen ditu ikastetxe bakoitzak. Baina finean zer dira? Kea besterik ez.

Ikastetxea aukeratzeko arrazoi gehiago egongo dira, baina nik uste balio izan duela gure egoeraren argazkia egiteko, edo karikatura, nahi baduzue. Laburbilduz, Urola Kostaldea osatzen dugun herrietako ikastetxe guztietan egiten da kalitatezko eskaintza. Ikasleen emaitzak antzerakoak dira batean eta bestean, eta ikastetxe guztietatik irteten dira urtero etorkizuneko medikuak, ingeniariak, mekanikariak eta ile apaintzaileak. Ikastetxe guztietatik irteten dira hiritar eredugarriak eta bestelakoak, lagun taldea osatu dutenak eta bazterrean geratu direnak, osasun arazoak dituztenak eta osasuntsu daudenak.

Orain da aldaketak egiteko momentua. Jaiotze tasaren jaitsierak kinka larrian jarri ditu ikastetxe gehienak. Nolako hezkuntza sistema nahi dugu hemendik 30 urtera? Galdera hori egin beharrean, bizirauteko instintu miopeak marketinean, instalazio faraonikoetan eta ondokoak baino zerbitzu hobeak eskaintzean jarri du begirada. Eta aizue, hezkuntzaz ari gara. Hau ez da serioa. Ez gara atzo jaiotakoak. Aspaldi utzi genion belaunak urratzeari eta gauden puntuan egonda, ausardiaz egindako hezkuntza sistema propio bati buruz eztabaidatu beharrean, adabaki bat ala bestea doakion hobe, horretaz ari gara.

Zer da Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa? Nondik atera da? Publiko hitza zentzua galtzeraino bihurtuz zaku berean sartzen ditu guztiak. Paradoxikoa, gainera, publikoaren ideia nola aldatzen duten batzuek erabilera eremuaren arabera, komeni zaienaren arabera. Eta ez, txapel berak ezin ditu bi buru estali. Gainera, lege honek eskaintzen duena ez da gizartearen interesei begiratzen dion zerbitzu publiko bat. Hezkuntza merkatuaren oraindik eta lehia basatiagora eramateko gonbidapena baizik.

Finantzatu guztiak %100ean. Jarri txirrindulari guztiak irteera postuetan: ikastetxe pribatuak merkatuan dagoen bizikletarik modernoenarekin, publikoak

herdoildutako kurpil zulatuen ganean. Jo! Nekatuta gaude haizea beti kontra izateaz! Pedalei gogor eragiten diegu guk ere, baina irabazlearen maillotak lehen esan dizuet, dagoeneko prest dituzte! Agur Zaragueta, Orokieta eta Zumaiako herri eskola. Hori dago honen guztiaren atzean, eta hori pribatizazioa da, ez besterik.

Sistema justuago bat aldarrikatzen dugu, guztiontzat joko arau berak dituen. Eta horretarako modu bakarra dago, titulartasun bakarra egotea: publikoa.

Titulartasuna da gure eskualdean gakoa. Eta horregatik, hezkuntza lege berriak ezinbestean jaso behar du balizko publikazio prozesu bat. Herriz herri, hezkuntza mahaiak osatu eta serio, lanean hasteko garaia da. Orion ekin diote bideari eta norabide berean lanean hasteko deia luzatu nahi diegu Zarauzko eta Zumaiako Udalei ere.

Gure herrietan kohesio soziala erabat apurtzen du titulartasun ezberdineko ikastetxeak egoteak. Getarian, Aian eta Aizarnazabalen ikastetxe bakarra dago, publikoa. Eta elkarrekin eta eskutik emanda ari dira egungo erronka eta beharrei erantzuten. Horiek dira herriko eskolak, herritarrenak eta herriarekin eta herriarentzako lanean ari direnak. Hitzaren erabilera interesatuak alde batera utzi eta jabetu gaitezen titulartasun bereko eskolak egotearen onurez, inora ez garamatzen lehia alde batera utziz.

Horregatik, eta ezinbestean, Hezkuntza Legeak publikazio prozesu bat ahalbidetzeko modua jaso behar du. Hori delako bidea, bide bakarra.

Eta hemendik 30 urtera, bilobak galdetzen didanean:

-Amona, zergatik joaten dira gure lagun batzuk La Sallera eta beste batzuk Ikastolara?

Pozik erantzungo diot: “etxetik hurbilen dituzten Eskolak direlako”. Eta kontatuko diot, aspaldi, jabe ezberdinak zituztela ikastetxe horiek, eta herrian bazterketa eta haserreak sortzen zituela horrek.

Ez nuke agerraldia amaitu nahi, bizikleta herdoilduak izanagatik ere, Euskal Eskola Publikoaz harro gaudela esan gabe. Harro gaude gure Eskolez, eskoletan egiten den lanaz, hezkuntza proiektuez eta guztion artean osatzen dugun familiaz. Anitza eta koloretsua da, geroz eta gehiago, gure gizartea bezala. Baina bakarrik sentitzen gara sarri. Gure hitza eta bihotza ez daude politikoki ordezkaturata. Eta horren aurrean saretzen eta antolatzen hasi gara. Horregatik eta horretarako sortu dugu eskualde mailako plataforma ere.

Eta bide batez, ikus dezazuen ez garela ez bat eta ez bi. Eta lege proposamenak parlamentuan izan zuen eta izango duen babesik ez duela kalean. Asko gara hezkuntza publikoaren alde gaudenak eta politikoki ordezkaturako gaituen nor ez daukagunak. Ea behingoz konturatzen zareten eta lege honekiko hartu duzuen posizioaren ondorioez jabetzen zareten. Guk garbi daukagu: oinarri hauen gainean jaio den lege proiektuak **EZ** dauka gure babesik.

Hau esanda, eta amaitzeko, gaur arratsaldeko 18:00etan Gasteizen, Bilbon eta Donostian egingo diren manifestazioetan parte hartzeko deialdia luzatu nahi dizuegu. Euskal Eskola Publikoaz Harro gaudelako!

Eskerrik asko.

